

LK Selek Plus

Fondoa kategoria honetakoa da: Fondoaren fondoa. NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKOR MIXTOA. Fondoaren eta inbertitzailearen arrisku-profila: 4 (1etik 7ra bitarteko eskalan). Kudeaketa-helburua: % 30 MSCI World + % 30 BofA ML 3-5 Euro Government + % 25 BofA ML Global large Cap Corporate +% 10 BofA ML Global High Yield + % 5 Eonia urteko % 5eko hegakortasunetik hurbil, profil horri dagokion % 5-10 tartearen barruan betiere. Inbertsio-politika: Ondarearen % 50-100 inbertituko da gestio-erakundearen taldekoak diren edo ez diren Finantza IKE-etan (aktibo egokia), harmonizatuak izan ala ez (IKE harmonizatu gabeetan, % 30 gehienez); erabateko itzulkinetako IKE-etan (merkatuaren bilakaerari lotuta ez daudenak), berriz, % 20raino inberti daiteke. Zuzenean edo zeharka, edozein kapitalizazio eta sektoretako errenta aldakorrean inbertitzen da esposizio osoaren % 0-75; gainerakoa, berriz, errenta finko publiko/pribatuan, barne direla diru-merkatuan kotizatzen diren edo ez diren tresnak, likidoak eta, batik bat, gordailuak, titulizazioak, Espainiako finantza-erakundeetako mendeko zorra, hipoteka-zedulak eta Espainiako jaulkitzaileen zor-agiriak. Dibisa-arriskurako esposizioa % 0-100 izango da. Zuzeneko inbertsioan eta zeharkakoan, ertaina (gutxienez) izan behar du errenta finkoko jaulkipenen kalitateak (BBB-, gutxienez), edo, hortik beherakoa bada, une bakoitzean Espainiako Erresumak daukana; behe-mailako kalitatekoa (BBB- baino txikiagoa), berriz, esposizio osoaren % 25eraino izan daiteke Errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupenak -1 eta 6 urte bitartekoa izan behar du. Batez ere ELGEkoak izan behar dute jaulkitzaileek eta merkatuek, eta esposizio osoaren % 25eraino inberti daiteke suspertzen ari diren herrialdeetan. Herrialde horietako errenta aldakorretan egiten den inbertsioak ez du gainditu behar % 10, ez eta % 25 ere suspertzen ari diren herrialdeetan eta/edo errendimendu handiko jaulkitzaileetan egiten denak. Finantza-tresna deribatuen bidezko merkatu-arriskurako esposizioa ondare garbiaren zenbatekoa izango da, asko jota. Aukera egongo da, % 35etik gora Europar Batasuneko estatu batean, autonomia-erkidego batean, toki-erakunde batean, Espainia kide duten nazioarteko erakundeetan eta Espainiako baino kaudimen handiagoko estatuetan inbertitzeko. Estaldura eta inbertsioa helburutzat harturik, deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako deribatuekin jardun ahal izango da, bai eta merkatu antolatuetan negoziatu ez direnekin ere. Argibide gehiago lortzeko, jo fondoaren informazio-liburuxkara. Dokumentazioa Hiruhileko txostenak

- 4.. Hiruhilekoa 20 - 3.. Hiruhilekoa 20 - 2.. Hiruhilekoa 20 - 1.. Hiruhilekoa 20

Seihileko txostenak

- 2.. Seihilekoa 20 - 1.. Seihilekoa 20

Informazio liburuxka

Memoria

- Memoria

